

# AGENDA POLITIKOA

## KONFEKOOP-EN AGENDA POLITIKOA

### XIII. LEGEGINTZALDIA



## KONFEKOOP

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa  
Confederación de Cooperativas de Euskadi

## 1 GOBERNANTZA

Gobernantza-eredu berri bat bultzatzea, KONFEKOOPEk ordezkatzeko dituen enpresa kooperatiboek zeharka parte har dezaten elkarrizketa instituzional eta sozialean, Euskadiren garapenerako eragile erabakigarri gisa.

KONFEKOOPEk Lanbideren Administrazio Kontseiluan eskubide osoko kide gisa parte hartuko duela bermatzea, Enpleguaren Euskal Legea betez.

## 2 GARRANTZI INSTITUZIONALA

Enpresa kooperatiboek eta gizarte-ekonomiak erakundeetan duten garrantzia handitzea Eusko Jaurlaritzaren egitura berriaren barruan.

## 3 ARAIDIA

Euskal enpresa kooperatiboaren eskariak jasotzeko Diputatuen Kongresuan izapidetuko diren lege-erreformak bultzatzen laguntzea.

## 4 FINANTZAKETA

Gizarte Ekonomiako laguntzen eta dirulaguntzen aurrekontu-zuzkidura handitzea, ekintzailtza kooperatiboaren sustapenean arreta jarritz, eta enpresa kooperatibo guztientzat eskuragarriagoak izateko baldintza arautzaileak sinplifikatzea.

## 5 FISKALITATEA

Eusko Jaurlaritzak, Zerga Koordinaziorako Organoaren bitartez, eredu sozioenpresarial kooperatibista bultzatuko duen eta haren lehiakortasuna bermatuko duen zerga-politika sustatzea, horretarako beharrezkoak diren zerga-tresnak edukiz.

## 6 ETORKIZUNEKO ERABAKIAK

Euskal kooperatibismoa, egungo eta etorkizuneko erronka handiei modu berritzailean erantzuteko aliatua den heinean:

- Energia-kooperatibak bultzatzea, "bidezko" klima-trantsizioaren eredu gisa.
- Erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiboaren ereduak eta cohousing-eko etxebizitza kooperatiboak sustatzea.
- Ekintzailtza-proiektu berrietarako inkubagailu eta abiarazte-plataforma izango den enpresa-sustapeneko kooperatiba sustatzea.

## 7 LANKIDETZA

"Eusko Jaurlaritzaren, Kooperatiben Kontseilu Gorenaren eta KONFEKOOPen arteko asmo- eta lankidetzak-akordioa" jarraitzea eta betetzea, eta Eusko Jaurlaritza berriak bultzatutako arau-proposamenei dagokienez Kontseiluaren irizpen-eginkizuna indartzea.

## 8 INDUSTRIA- SUBIRANOTASUNA

Industria-subiranotasun estrategikoa Eusko Jaurlaritza berriaren ekintzaren lehentasunezko ildoak izatea, Euskadiko industria-sektoreko enpresa kooperatiboaren lehiakortasuna indartzeko.

## 9 HUB

Euskadiko kooperatibismoarako eta gizarte-ekonomiarako abangoardiako eta berrikuntzako HUB bat eratzea.

## 10 EZAGUTZA

Enpresa kooperatiboaren jarduerari buruzko datu banakatuak sartzeko Eustaten eta Eusko Jaurlaritzaren estatistiketan, Euskadiko ekonomiari, enpleguari, lurralde-garapenerari eta ongizateari egiten dioten ekarpena hobeto ezagutzeko.